

BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

BOLETIN OFICIAL DE BIZKAIA

Legezko Gordailua / Depósito Legal BI-1958-1 - ISSN. 1134-8720

BAO. 108. zk. 2008, ekainak 6. Ostirala

— 14705 —

BOB núm. 108. Viernes, 6 de junio de 2008

Lehenengo zatia / Primera parte

Laburpena / Sumario

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa / Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Foru Aldundia / Diputación Foral

Ogasun eta Finantza Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 99/2008 FORU DEKRETUA, ekainaren 3koa; horren bidez, London School of Economics unibertsitatean espezializatzeko beka araupetzen dituzten oinarriak onetsi dira eta ikasketak horiek egiteko beka deitu dira.

Sondikako BEAZ Mintegia herri jabaritik kentzeari buruzko jendaurreko informazioa.

Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saila

BFAko Suhiltzaile Zerbitzurako hiriko autoponpa astun bat eta autoeskalera automatiko bat erosteko hornidura-kontratuaren lizitazio iragarria.

Fruiz, Dima, Atxondo, Gatika, Maruri, Markina, Etxebarria eta Bolibarko ura hornitzeko instalazioetan teleaginte eta telekontrolleko sistemen hornidura eta instalazioa.

Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 108/2008 FORU DEKRETUA, ekainaren 3koa, honen bidez, Artisautza programaren 2008ko lehen deialdia egiten da artisautzako enpresentzat.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 107/2008 FORU DEKRETUA, ekainaren 3ko, honen bidez, Artisautza programaren 2008ko lehen deialdia egiten da toki erakundeentzat eta artisautzako elkarteentzat.

14707

14707

14710

14711

14711

14713

14713

14713

14718

Departamento de Hacienda y Finanzas

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 99/2008 de 3 de junio por el que se aprueban las bases reguladoras y se convocan las Becas para realizar estudios de especialización en la London School of Economics.

Información pública de desafectación del dominio público del BEAZ Mintegi de Sondika.

Departamento de Relaciones Municipales y Administración Pública

Anuncio de licitación del contrato de suministro de adquisición de una autobomba urbana pesada y una autoescalera automática con destino al S.E.I.S de la D.F.B.

Anuncio de adjudicación del contrato de suministro e instalación de sistemas de telemando y telecontrol en las infraestructuras de abastecimiento de los municipios de Fruiz, Dima, Atxondo, Gatika, Maruri, Markina, Etxebarria y Bolibar.

Departamento de Innovación y Promoción Económica

DECRETO FORAL 108/2008, de 3 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se realiza la primera convocatoria del año 2008 para empresas artesanas del programa Artisautza.

DECRETO FORAL 107/2008, de 3 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se realiza la primera convocatoria del año 2008 para entidades locales y asociaciones artesanas del programa Artisautza.

II. Atala / Sección II

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Administrazioa / Administración Local del Territorio Histórico de Bizkaia

Bilboko Udala

Muskizko Udala

Portugaleteko Udala

Trapagarango Udala

Amorebieta-Etxanoko Udala

Galdakaoko Udala

Sestaoko Udala

Bermeoko Udala

14723

14755

14756

14765

14768

14771

14772

14773

Ayuntamiento de Bilbao

Ayuntamiento de Muskiz

Ayuntamiento de Portugalete

Ayuntamiento de Valle de Trápaga

Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano

Ayuntamiento de Galdakao

Ayuntamiento de Sestao

Ayuntamiento de Bermeo



Gernika-Lumoko Udala	14773	Ayuntamiento de Gernika-Lumo
Getxoko Udala	14787	Ayuntamiento de Getxo
Mungia Udala	14818	Ayuntamiento de Mungia
Ugao-Miraballesko Udala	14824	Ayuntamiento de Ugao-Miraballes
Muntibarko Udala	14826	Ayuntamiento de Muntibar
Balmasedako Udala	14828	Ayuntamiento de Balmaseda
Sondikako Udala	14829	Ayuntamiento de Sondika
Gautegiz Arteagako Udala	14829	Ayuntamiento de Gautegiz Arteaga
Etxebarriko Udala	14830	Ayuntamiento de Etxebarri
Abanto-Zierbenako Udala	14830	Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana
Berriatukoko Udala	14830	Ayuntamiento de Berriatua
Santurtziko Udala	14831	Ayuntamiento de Santurtzi
Arteako Udala	14833	Ayuntamiento de Artea
Urduñako Udala	14854	Ayuntamiento de Orduña
Abadiño Udala	14869	Ayuntamiento de Abadiño

IV. Atala / Sección IV

Estatuko Administrazio Orokorra / Administración General del Estado

Barne Ministerioa	14879	Ministerio del Interior
Lan eta Inmigratioaren Ministraritza	14880	Ministerio de Trabajo e Inmigración
	14955	Ministerio de Medio Ambiente y Medio Rural y Marino

V. Atala / Sección V

Justizi Administrazioa / Administración de Justicia

14956	Tribunal Superior de Justicia del País Vasco
14956	Juzgado de lo Social número 2 de Bilbao (Bizkaia)
14958	Juzgado de lo Social número 4 de Bilbao (Bizkaia)
14959	Juzgado de lo Social número 5 de Bilbao (Bizkaia)
14960	Juzgado de lo Social número 6 de Bilbao (Bizkaia)
14960	Juzgado de Primera Instancia e Instrucción número 1 de Durango (Bizkaia)

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Foru Aldundia / Diputación Foral

Ogasun eta Finantza Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 99/2008 FORU DEKRETUA, ekainaren 3koa; horren bidez, London School of Economics unibertsitatean espezializatzeko beka araupetzen dituzten oinarriak onetsi dira eta ikasketa horiek egiteko beka deitu dira.

Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiaren helburuetako bat da Europako gaietan espezializatutako profesionalak prestatzea. Horregatik, egungo esparru juridikoa eta sozio-ekonomikoa kontuan hartuta, lehentasuna eman dio Europako erakunde eta ekonomiarekin trebatuko diren profesionalak prestatzen laguntzeari.

Hain zuzen, aipatutako helburua betetzera zuzendutako ekintzen barruan beka batzuk deitu dira, hau da, 2008ko ikasturtean London School of Economics and Political Science unibertsitatean Europar Batasunari lotutako gaiak ikasteko programa berezia egiteko beka.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2008ko ekainaren 3ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DA:

1. artikulua.—Xedea

Unibertsitateko lizentziadunentzako beka batzuk deitu dira, London School of Economics unibertsitateak egin duen programa berezi batean espezializatzeko ikasketak egin ahal izateko.

2. artikulua.—Beka kopurua

Guztira zortzi beka deitu dira.

3. artikulua.—Iraupena

Hiruhileko bateko ikasketak egingo dira gehienez, 2008ko urri-tik abendura, eta London School of Economics unibertsitateak egingo programa berezia zorrotz beteko da. Hona hemen programaren 9 moduluak:

- 1. modulua: EBko Gizarte eta ekonomia arloko kohesio-politikak.
- 2. modulua: EBko politikak prestatzea.
- 3. modulua: Europako ekonomiaren integrazioarako ereduak: UME.
- 4. modulua: Europako Ekonomia Politika.
- 5. modulua: Europako Gizarte Politika eta Ongizatearen Estatuaren Erreforma.
- 6. modulua: Aurrekontu publikoak egitea eta finantza kudeaketa.
- 7. modulua: EB munduan.
- 8. modulua: Gai espezializatuak buruzko mintegiak, 4,5 ordu astean.
- 9. modulua: Kanpoko hizlarien eta bisiten parte-hartzea, 4 ordu astean.

Egitarauaren barruan dago, baita ere, aste beteko prestakuntza Harvardeko Unibertsitatean.

4. artikulua.—Zuzkidura

Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean ordainduko dio Enterprise LSE Ltd. enpresari urtero ezartzen den zenbatekoa, programan izena

Departamento de Hacienda y Finanzas

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 99/2008 de 3 de junio por el que se aprueban las bases reguladoras y se convocan las Becas para realizar estudios de especialización en la London School of Economics.

La Dirección General de Servicios tiene entre sus objetivos el de formar profesionales especialistas en temas europeos. Y ello porque considera prioritario, dado el actual marco jurídico y socio-económico de referencia, el contribuir a la formación de profesionales que se familiaricen con las instituciones y la economía europeas.

Dentro de las acciones encaminadas a éste propósito, se convocan Becas para realizar el Programa de estudios específico en asuntos relacionados con la Unión Europea durante el curso 2008 en la London School of Economics and Political Science.

Por todo ello, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, en reunión de 3 de junio de 2008.

SE DISPONE

Artículo 1.—Objeto

Convocar Becas destinadas a licenciados universitarios para realizar estudios de especialización en el marco del programa específico elaborado por la London School of Economics.

Artículo 2.—Número de becas

El número de becas serán ocho.

Artículo 3.—Duración

El periodo de estudios máximo es de un trimestre concretamente de octubre a diciembre del 2008 y se ajustará al programa específico elaborado por la London School of Economics que se desglosa en los 9 módulos siguientes:

- Módulo 1: Políticas de Cohesión socio económica en la UE.
- Modulo 2: Elaboración de Políticas en la UE.
- Modulo 3: Modelos de Integración Económica en Europa: UME.
- Modulo 4: Economía Política Europea.
- Modulo 5: Política Social Europea y Reforma del Estado del Bienestar.
- Modulo 6: Presupuestación Pública y gestión financiera.
- Modulo 7: La UE en el mundo.
- Modulo 8: 4,5 horas de seminarios semanales sobre temas especializados.
- Modulo 9: 4 horas a la semana de conferenciantes externos y visitas.

El Programa incluye una semana de formación en la Universidad de Harvard.

Artículo 4.—Dotación

La Diputación Foral de Bizkaia pagará directamente la cuantía establecida anualmente a Enterprise LSE Ltd. cubriendo los gas-

emateko gastuak eta prestakuntza aldiko ostatuaren gastuak ordainduz.

5. artikulua.—*Betekizunak*

Eskatzaileek hurrengo betekizunak bete behar dituzte:

a) Administrazioari dagokionez Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriren batean auzotarturik daudela frogatu behar dute. Hala-ber, onartu egingo dira Bizkaiko Lurralde Historikoko unibertsitate edo fakultateren batean ikasi duten eta ikasketa horiek amaitu dituzten pertsonen eskabideak.

b) Ezinbestekoa izango da ingeles maila bikaina izatea.

c) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

6. artikulua.—*Eskabideak aurkezteko epea*

Eskabideak aurkezteko epea 10 asteguneko izango da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharramunetik hasita.

7. artikulua.—*Hautatze sistema eta prozesua*

Bekak adjudikatzeko hautatze sistema norgehiagoka izango da, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak berariaz sortzen duen batzordeak egindako balorazioa oinarritzat hartuta.

Zerbitzuen zuzendari nagusia izango da batzordeburua eta gehienez bost kide izango ditu, Ogasun eta Finantza Saileko funtzionarioak eta beken xede diren gaietako adituak osatuta; gainera, LSE unibertsitateko ordezkari gisa lagunduko dute programaren zuzendariak edota ikasketa-zuzendariak.

Batzordeak hautagaien ikasketa-espedientea eta lan esperientzia ebaluatuko ditu, eta ingeles maila ona dutela egiaztatzen duten pertsonak zuzeneko elkarrizketara deituko ditu.

Batzordeak hautagaiei zuzeneko elkarrizketa egingo die horien prestakuntzari, lanbide-ibilbideari eta ingelesaren gaineko ezagutzei buruzko informazioa osatzeko. Horretarako, batzordeak adituen aholkuak eska ditzake.

Hautagaiak hautatzeko prozesua gardentasun handiagoaz egite aldera, hurrengo haztapena ezarri da:

- Ikasketa-espedientea: %30.
- Lanbide-espedientea: %30.
- Zuzeneko elkarrizketa: %40.

Ikasketa-espedientea aztertzean ikasgai bakoitzean lortu den puntuazioa eta lizentziatura eskuratu arte ikasgai bakoitza gainditzeko behar izan den deialdi kopurua hartuko dira kontuan.

Ingeles maila egiaztatzeko probak eta zuzeneko elkarrizketa noiz eta non egingo diren jakinarazteko Ogasun eta Finantza Saileko iragarki-oholean iragarki bat jarriko da, probak eta elkarrizketa egin baino bi egun lehenago, gutxienez. BFAren Europako Gaiei buruzko web orrialdean ere jakinaraziko dira eta SMS bat bidaliko zaie sakelako telefonoaren zenbakia eman duten pertsonen.

8. artikulua.—*Beken adjudikazioa*

Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak bekak adjudikatzeko ebazpena emango du, aipatutako batzorde ebaluatzaileak proposatuta.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hilabetera emango da ebazpena

Ebazpen hori banaka jakinaraziko da eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Prozedura ebazten duen foru aginduak administrazio bidea agortuko du; haren aurka, nahi izanez gero, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko aza-

tos de inscripción en el programa junto con los de alojamiento el periodo de formación.

Artículo 5.—*Requisitos*

Las personas solicitantes han de cumplir los siguientes requisitos:

a) Acreditar su vecindad administrativa actual en alguno de los municipios pertenecientes al Territorio Histórico de Bizkaia. Asimismo se aceptarán las solicitudes de personas que hayan cursado estudios en su totalidad en alguna de las universidades o facultades sitas en el Territorio Histórico de Bizkaia

b) Será absolutamente imprescindible acreditar un excelente nivel de inglés.

c) Encontrarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

Artículo 6.—*Plazo de presentación de solicitudes*

El plazo para la presentación de solicitudes será de 10 días hábiles a partir del día siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Artículo 7.—*Sistema y proceso de selección*

El sistema de selección para la adjudicación de las becas será el de concurrencia competitiva, en base a la valoración realizada por el Comité creado a tal efecto por el Diputado Foral de Hacienda y Finanzas.

La presidencia de dicho Comité será ejercida por el director general de Servicios y estará formada por un máximo de cinco miembros, que serán personal funcionario del Departamento de Hacienda y Finanzas y personas expertas en la materia objeto de las becas, entre ellas se contará con la colaboración y presencia del Director del Programa y/o del Director Académico como representantes de la LSE.

El Comité evaluará el expediente académico de las personas candidatas y su experiencia profesional, al objeto de citar a la entrevista personal a quienes a su vez hayan acreditado convenientemente el nivel de inglés satisfactorio.

Dicho Comité entrevistará a las personas candidatas para completar información relativas a su formación, trayectoria profesional y conocimiento de inglés. La Comisión podrá recabar el asesoramiento de expertos en la materia.

En aras de una mayor transparencia sobre el proceso de selección de candidaturas se establece la siguiente ponderación.

- Expediente académico 30%
- Experiencia profesional 30 %
- Entrevista personal 40%

A tales efectos el expediente académico se analizará según las calificaciones obtenidas en cada asignatura y el número de convocatorias utilizadas para superar cada materia hasta obtener la licenciatura.

Los días y lugar de celebración de las pruebas a realizar para acreditar el nivel de inglés y la realización de la entrevista personal se comunicarán mediante su publicación en el tablón de anuncios del Departamento de Hacienda y Finanzas, con dos días de antelación como mínimo a la celebración de las mismas. Igualmente se publicarán en la página web de Asuntos Europeos de la DFB y se enviará un SMS a quienes hayan facilitado un número de teléfono móvil.

Artículo 8.—*Adjudicación de las becas*

La concesión de estas becas se realizará mediante Resolución del diputado foral de Hacienda y Finanzas, a propuesta del Comité evaluador mencionado.

El plazo para dictar resolución será de 1 mes desde la fecha en que finalice el plazo de presentación de solicitudes.

Esta Resolución se notificará individualmente además de publicarse en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Contra la Orden Foral resolutoria del presente procedimiento, que agota la vía administrativa, podrá interponerse o bien, ante el diputado foral de Hacienda y Finanzas el recurso potestativo de

roaren 26ko 30/1992 Legean araupetutako berraztertzeo errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Ogasun eta Finantza Saileko foru diputuari ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen; bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsua Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, eta horretarako bi (2) hileko epea egongo da prozedura ebazten duen foru agindua edo honen aurka aurkeztutako berraztertzeo errekurtsua ebazten duen foru agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa araupetu duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorriz.

Ebazpenak deialdia hutsik gera dadila ezar dezake, baldin eta ez bada aurkeztu nahikoa betekizun eta meritu dituen pertsonarik.

9. artikulua.—Laguntzen bateraezintasuna

Foru dekretu honetan arautzen diren beka bateraezinak dira jarduera berberak jasotzen dituzten administrazio edo erakundeen beste laguntza batzuekin, eta baita ere, BFAk urtero deitzen dituen Europako gaietako espezializazio bekekin ere.

10. artikulua.—Esparru juridikoa

Foru dekretu honetan ezartzen ez den guztirako, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duen 5/2005 Foru Arauko artikuluetan ezarritakoa beteko da.

11. artikulua.—Organo eskudunak

Ogasun eta Finantza Saileko diputatua izango da dekretu honetan xedatutakoa aplikatzearen ondoriozko ekintzak gauzatzeko organo eskuduna, baldin eta dekretuaren bidez ez bazaizkio eman zazpigarren artikuluan aipatutako batzordeari.

AZKEN XEDAPENAK:

Lehenengoa

Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio dekretu honetan xedatutakoa garatu edo interpretatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapenak eman ditzan.

Bigarrena

Xedapen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Hirugarrena

Dekretu honentzako berrehun eta berrogei mila euro (240.000 euro) gorde dira aurrekontutik, G/130101/46200/0000/2007/0271 zenbakiaz.

Dekretu honetako beka emateko ezinbestekoa da dena delako ekitaldiko aurrekontuan beraren ondoriozko betebeharrak finantzatzeko nahikoa kreditu egotea.

Bilbon, 2008ko ekainaren 3an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

ERANSKIN BAKARRA

1. Laguntzak eskatzeko aurkeztu behar diren agiriak

- Curriculum vitae eguneratua ingelesez.
- Lizentziatua dela egiaztatzen duen ikasketa-ziurtagiri osoa.

Azterrian edo estatukoak ez diren zentro espezializatueta egin-dako ikasketak aintzatetsita egon behar dira eta ondorio zibil guztiak izan behar dituzte.

reposición regulado en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo común, en el plazo de un mes (1) contado a partir del día siguiente a la fecha de notificación de la resolución, o bien recurso contencioso-administrativo ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa en el Plazo de (2) meses contados a partir del día siguiente a la fecha de notificación de la Orden Foral resolutoria del procedimiento o, en su caso, de la Orden Foral resolutoria del recurso de reposición interpuesto contra la misma, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

La Resolución podrá declarar desierta la convocatoria cuando considere que no existe persona alguna, o en número suficiente, que reúna los requisitos y méritos exigidos en la misma.

Artículo 9.—Incompatibilidad de ayudas

Las becas reguladas en el presente Decreto Foral, serán incompatibles con cualquier otra ayuda procedente de cualquier otra Administración o Entidad que contemple las mismas actividades. Incompatibilidad que se extiende a las Becas de especialización en asuntos europeos que anualmente convoca la DFB.

Artículo 10.—Marco jurídico

En los casos no previstos por este Decreto Foral, regirá lo establecido en los artículos que contiene la Norma Foral 5/2005 por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Artículo 11.—Órgano competente

El Diputado de Hacienda y Finanzas será el órgano competente para la realización de cuantos actos se deriven de la aplicación de lo dispuesto en el presente Decreto, que no se hayan atribuido expresamente en el mismo a la Comisión a que se refiere el artículo Séptimo.

DISPOSICIONES FINALES:

Primera

Se faculta al diputado foral de Hacienda y Finanzas, a dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo o interpretación de lo dispuesto en el presente Decreto

Segunda

La presente disposición entrará en vigor a partir de su fecha de publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Tercera

La consignación presupuestaria para hacer frente al presente Decreto asciende a doscientos cuarenta mil (240.000) euros, siendo G/130101/46200/0000/2007/0271 la posición presupuestaria.

La concesión de las becas a las que se refiere el presente decreto queda sometida a la condición suspensiva de las existencias de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones derivadas del mismo en el ejercicio correspondiente.

Bilbao, a 3 de junio de 2008.

El diputado foral de Hacienda y Finanzas,
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

El Diputado General,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

ANEXO ÚNICO

1. Documentación a presentar para la solicitud de las ayudas

- Curriculum vitae actual en inglés.
- Certificación académica completa que acredite su condición de Licenciado/a.

Los estudios efectuados en el extranjero o en centros especializados no estatales deberán estar reconocidos y tener plenos efectos civiles.

- c) Ingeles maila egiaztatzen duten agiriak.
- d) Egin diren lanen eta argitalpenen kopia.
- e) Administrazioari dagokionez Bizkaiko Lurralde Historikoko auzotartasuna egiaztatzen duen agiria.
- f) Zerga betebeharrak egunean dituela frogatzen duen ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak eta Bizkaiko Foru Ogasunak emanak.
- g) Eskabideen inprimakiak eta datu pertsonalak.

Interesatuek Ogasun eta Finantza Sailean jaso ditzakete eskabideen inprimakiak. Hurrengo web orrialdetik ere deskarga daiteke: <http://www.bizkaia.net/ogasuna/europa/dekretua/.LSE.pdf>

Hala ere, behar bezala betetako inprimakiak eta gainerako agiriak Ogasun eta Finantza Saileko Erregistroa eraman behar dira, Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusira (Kaputxinoak, 4. -48013 Bilbo) erregistroa zabalik dagoen orduetan (8:30etatik 13:30etara). Bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legeko 38.4. artikuluan ezarritako tokietara eraman daitezke.

2. Beka jasotzea.

Bekadunen eskubideak eta betebeharrak

- a) Deialdia egin duen organoak beretzat gorde du ikasketen aldiari zehar bere bekadunaren jardueri buruzko txostena eskatzeko eskubidea. Ikasketen programaren arduradunei ere eskatu ahal izango die txosten hori.
- b) Bekadun bakoitzak gaixotasun eta istripu aseguru-poliza bat sinatu behar du, nahitaez. Deialdia egin duen organoak ez du erantzukizunik izango bekadunak kontzeptu horiengatik izan ditzakeen arriskuak.
- c) Beka onartzean oinarri hauek guztiak betetzeko konpromiso formal hartzen da; konpromiso hori atxikipen agiri batean jasoko da eta bekadunek ikasketak hasi baino lehen sinatuko dute agiria.

Bilbon, 2008ko ekainaren 3an.

(I-907)

Sondikako BEAZ Mintegia herri jabaritik kentzeari buruzko jendaurreko informazioa.

Ogasun eta Finantzen foru diputatuak, 2008ko maiatzaren 19ko Foru Agindu bidez, herri jabaritik kentzeko espedientea hastea erabaki zuen; izan ere, ondoren deskribatzen den ondasuna aurreantzean ez baita egongo zerbitzu publiko bat emateari lotuta:

1. 13.712,61 m²-ko azalera duen lur-zatia, eta horietatik 10.092,86 m² Sondikako udal mugarteari dagozkoa.

Mugak: iparraldean, Bergaretxe y Cía enpresaren jabetza; hegoaldean, Polímeros Industriales enpresaren jabetzako finka; ekialdean, Asua-Sangroniz errepidea; eta mendebaldean, Asua ibaia.

Finka horren perimetroaren barruan honako eraikin hauek daude:

- 1. Pabilioi bat, 1.131 m²-ko azalera duena: sotoa, beheko solairua eta lehen solairua ditu.
- 2. Pabilioi bat, 1.020,10 m²-ko azalera duena: beheko solairua eta goiko solairua ditu.
- 3. Pabilioi bat, 922,60 m²-ko azalera duena: beheko solairua eta goiko solairua ditu.
- 4. Pabilioi bat, 860,35 m²-ko azalera duena: beheko solairua eta goiko solairua ditu.
- 5. Pabilioi bat, 860,35 m²-ko azalera duena: beheko solairua eta goiko solairua ditu.
- 6. Pabilioi bat, 2.230,12 m²-ko azalera duena: beheko solairua eta goiko solairua ditu.

- c) Documentos que acrediten su nivel de inglés.
- d) Copia de los trabajos y publicaciones realizadas.
- e) Certificado acreditativo de la vecindad administrativa en el Territorio Histórico de Bizkaia.
- f) Certificado expedidos por el Instituto Nacional de la Seguridad Social y la Hacienda Foral de Bizkaia de encontrarse al día en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias.
- g) Impresos de solicitud con los datos personales.

Los impresos de solicitud estarán a disposición de los interesados en el Departamento de Hacienda y Finanzas. Igualmente podrán ser descargados a través de la página web en la siguiente dirección, <http://www.bizkaia.net/ogasuna/europa/dekretua/LSE.pdf>.

No obstante, los impresos una vez cumplimentados junto al resto de la documentación deberán ser remitidos al Registro del Departamento de Hacienda y Finanzas, Dirección General de Servicios, C/ Capuchinos, 4 48013 Bilbao, dentro del horario de funcionamiento del citado Registro (de 8,30 a 13,30 h), así como en los lugares a que se refiere el art. 38.4 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2. Disfrute de la beca.

Derechos y deberes de los becarios

- a) El órgano convocante se reserva el derecho a pedir en cualquier momento del periodo de estudios un informe sobre sus actividades. Dicho informe podrá también ser recabado a las personas responsables de su programa de estudios.
- b) Es requisito obligatorio la suscripción de una póliza de seguro de enfermedad y accidente por parte de cada una de las personas becadas. El órgano convocante no se hace responsable de los riesgos que pueda sufrir la persona becada por estos conceptos.
- c) La aceptación de la Beca supone el compromiso formal de atenderse a estas bases que será recogido en un documento de adhesión firmado por las personas becadas con anterioridad al inicio de los estudios.

Bilbao, a 3 de junio de 2008.

(I-907)

Información pública de desafectación del dominio público del BEAZ Mintegi de Sondika.

El diputado foral de Hacienda y Finanzas, mediante Orden Foral 1349/2008, de 19 de mayo, ha acordado iniciar expediente de desafectación del dominio público, por haber dejado de estar afecto a la prestación de un servicio público, del bien que a continuación se describe:

1. Terreno de cabida 13.712,61 m², de cuya extensión corresponden al término municipal de Sondika 10.092,86 m².

Linda: norte, propiedad de Bergaretxe y Cía; sur, finca propiedad de Polímeros Industriales; este, carretera de Asua a Sangroniz; y oeste, ría de Asua.

Dentro del perímetro de esta finca existen las siguientes edificaciones:

- 1. Pabellón que ocupa una superficie de 1.131 m², consta de sótano, planta baja y piso.
- 2. Pabellón que ocupa una superficie de 1020,10 m², consta de planta baja y piso alto.
- 3. Pabellón que ocupa una superficie de 922,60 m², consta de planta baja y piso alto.
- 4. Pabellón que ocupa una superficie de 860,35 m², consta de planta baja y piso.
- 5. Pabellón que ocupa una superficie de 860,35 m², consta de planta baja y piso alto.
- 6. Pabellón que ocupa una superficie de 2.230,12 m², consta de planta baja y piso alto.

7. Pabilioi bat, 658,60 m²-ko azalera duena: beheko solairua eta goiko solairua ditu.

8. Pabilioi bat, 309 m²-ko azalera duena: sotoa eta beheko solairua ditu.

9. Pabilioi bat, 322,75 m²-ko azalera duena: sotoa eta beheko solairua ditu.

10. Teilape bat, 180,72 m²-ko azalera duena: beheko solairua du.

11. Pabilioi bat, 41,78 m²-ko azalera duena: beheko solairua du.

12. Zaintzaile-etxola bat, 38 m²-ko azalera duena: beheko solairua du.

13. Zaintzaile-etxola bat, 38 m²-ko azalera duena: beheko solairua du.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Ondasunen eta Eskubideen Inbentario Nagusian sartuta dago: IM0000470-5 zenbakia du; eta Bilboko 10. Jabetza Erregistroan dago inskribatuta: 44 liburua, 74 folioa, 2531 finka, 3. inskripzioa”.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Ondarea arautzen duen 3/2006 Foru Arauko 55.2b artikuluan ezarritako ondorioetarako, xedea kentzeko espedientea hilabeteko epean jarri behar da jendaurrean, idazki hau Bizkaiko Foru Aldundiaren ondare zerbitzuko bulegoetan (Basurtuko Kaputxinoen bidea, 2-5. solairua) argitaratzen den egunetik hasita.

Adierazitako epe hori erreklamaziorik edo alegaziorik egin gabe igarota, herri jabaritik kentzeko espedientea amaitutzat joko da, eta higiezin horrek ondare ondasunen edo jabari pribatuaren kalifikazio juridikoa lortuko du.

Bilbon, 2008ko maiatzaren 20an.—Finantza, Aurrekontu eta Ondareko zuzendari nagusia, Aitor Cobo Presilla

(I-919)

7. Pabellón que ocupa una superficie de 658,60 m², consta de planta baja y piso alto.

8. Pabellón que ocupa una superficie de 309 m², consta de planta baja y sótano.

9. Pabellón que mide una superficie de 322,75 m², consta de sótano y planta baja.

10. Tejavana que ocupa una superficie de 180,72 m², consta de planta baja.

11. Pabellón que ocupa una superficie de 41,78 m², consta de planta baja.

12. Caseta de guarda, que ocupa una superficie de 38 m², consta de planta baja.

13. Caseta de guarda, ocupa una superficie de 38 m², consta de planta baja.

Se encuentra incluida en el Inventario General de Bienes y Derechos de la Diputación Foral de Bizkaia con el número IM0000470-5, e inscrita en el Registro de la Propiedad número 10 de Bilbao, Libro 44, Folio 74, Finca 2531, inscripción 3.^a.

A los efectos previstos en el artículo 55.2b de la Norma Foral 3/2006 por la que se regula el Patrimonio del Territorio Histórico de Bizkaia, el expediente de desafectación se encuentra expuesto a información pública, durante el plazo de un mes contado desde la fecha de la presente publicación, en las oficinas del Servicio de Patrimonio de la Diputación Foral de Bizkaia, sitas, en Camino Capuchinos de Basurto, 2-5.^a planta.

Transcurrido el expresado plazo sin que haya reclamación o alegación alguna, se dará por concluido el expediente de desafectación del dominio público, obteniendo el citado inmueble la calificación jurídica de bien patrimonial o de dominio privado.

En Bilbao, a 20 de mayo de 2008.—El director general de Finanzas, Presupuestos y Patrimonio, Aitor Cobo Presilla

(I-919)

Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saila

BFAko Suhiltzaile Zerbitzurako hiriko autoPONPA astun bat eta autoeskalera automatiko bat erosteko hornidura-kontratuaren lizitazio iragarkia.

1. *Erakunde adjudikatzailea*
 - a) Erakundea: Bizkaiko Foru Aldundia.
 - b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saila, Kontratazio Zerbitzua, Kale Nagusia 25, beheko solairua, Bilbo 48009; telefonoa: 946083782; contratacionsuministros@bizkaia.net.
 - c) Espediente zenbakia: 2008/012/072/07.
2. *Kontratuaren xedea*
 - a) Xedearen azalpena: BFA-ko suhiltzaile zerbitzurako hiriko autoPONPA astun bat eta autoeskalera automatiko bat erostea.
 - b) Banaketa atalka eta kopurua: Bai.
 - 01 atala: Hiriko autoPONPA astuna.
 - 02 atala: Autoeskalera automatikoa.
 - c) Egiteko tokia: Uriosteko Suhiltzaile Etxea, Urioste auzoa, z/g, Ortuella.
 - d) Egiteko epea: 8 hilabete.
3. *Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era*
 - a) Tramitazioa: Arrunta.
 - b) Prozedura: Irekia.
4. *Lizitazioaren aurrekontua*

745.689,65 euro, BEZ kenduta.
Balio zenbatetsia: 745.689,65 euro, BEZ kenduta.
— 01 atala: Hiriko autoPONPA astuna

Departamento de Relaciones Municipales y Administración Pública

Anuncio de licitación del contrato de suministro de adquisición de una autobomba urbana pesada y una autoeskalera automática con destino al S.E.I.S de la D.F.B.

1. *Entidad adjudicadora*
 - a) Organismo: Diputación Foral de Bizkaia.
 - b) Dependencia que tramita el expediente: Departamento de Relaciones Municipales y Administración Pública, Servicio de Contratación, Gran Vía, 25, planta baja, Bilbao 48009, Teléfono 946083782, contratacionsuministros@bizkaia.net.
 - c) Número de expediente: 2008/012/072/07.
2. *Objeto del contrato*
 - a) Descripción del objeto: Adquisición de una autobomba urbana pesada y una autoeskalera automática con destino al S.E.I.S. de la D.F.B.
 - b) División por lotes y número: Sí.
 - Lote 01: Autobomba urbana pesada.
 - Lote 02: Autoeskalera automática.
 - c) Lugar de ejecución: Parque de Bomberos de Urioste, Barrio de Urioste, s/n. Ortuella.
 - d) Plazo de ejecución: 8 meses.
3. *Tramitación, procedimiento y forma de adjudicación*
 - a) Tramitación: Ordinaria.
 - b) Procedimiento: Abierto.
4. *Presupuesto de licitación*

745.689,65 euros, IVA excluido.
Valor estimado: 745.689,65 euros, IVA excluido.
— Lote 01: Autobomba urbana pesada

- Lizitazioaren aurrekontua: 271.551,72 euro, BEZ kenduta.
 - Balio zenbatetsia: 271.551,72 euro, BEZ kenduta.
- 02 atala: Autoeskailera automatikoa
- Lizitazioaren aurrekontua: 474.137,93 euro, BEZ kenduta.
 - Balio zenbatetsia: 474.137,93 euro, BEZ kenduta.
5. *Behin-behineko bermea*
Ez da eskatzen.
6. *Agiriak eta argibideak lortzea*
- a) Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saila, Kontratazio Zerbitzua, Kale Nagusia, 25, beheko solairua, Bilbo, 48009.
 - b) www.bizkaia.net/kontratu_publicoak web orrian.
 - c) Agiriak eta informazioa lortzeko azken data: eskaintzak jasotzeko azken eguna.
7. *Kontratistaren betekizun zehatzak*
Ekonomi eta finantza kaudimena eta kaudimen teknikoa eta profesionala: Administrazio Klausula Berezien Pleguan ezarritakoa.
8. *Parte hartzeko eskariak edo eskaintzak aurkeztea*
- a) Aurkezteko azken data: 2008ko uztailaren 7ko eguerdiko hamabiak (12) arte.
 - b) Aurkeztu beharreko agiriak: Administrazio Klausula Berezien eta Preskripzio Teknikoen Pleguetan eskatutakoak.
 - c) Aurkezteko lekua: 1. paragrafoan ezarritako leku berean.
 - d) Lizitatzailak eskaintzari eutsi behar dion epea: Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 145. artikulua araberak.
 - e) Aldagaien onarpena: Ez dira onartzen.
9. *Eskaintzen irekiera*
- a) Erakundea: Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saila (horretarako den ekitaldi aretoa).
 - b) Helbidea: Kale Nagusia, 25, beheko solairua.
 - c) Herria: Bilbo.
 - d) Data: Jakinarazi egingo da.
 - e) Ordua: goizeko hamarretan (10:00etan).
10. *Beste argibide batzuk*
- a) Kontratua adjudikatzeko erabiliko diren irizpideak administrazioaren klausula berezien pleguetan ageri dira.
 - b) Errekurtsoak: errekurtso berezia, SPKL-ko 37. artikulua.
 - c) Errekurtsoetarako organo eskuduna: Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren foru diputatua.
 - d) Errekurtsoak aurkezteko lekua: 1. paragrafoan ezarritako leku berean.
 - e) Errekurtsoen aurkezpenari buruzko informazioa eman dezakeen Zerbitzua: 1. paragrafoan ezarritakoa.
11. *Iragarkien gastuak*
«BOE», «EHAA» eta prentsako iragarkien gastuak adjudikatarioaren kontura izango dira. 3.000 euro, gehienez.
12. *Kontratugilearen profila*
www.bizkaia.net/kontratupublicoak.
13. *Iragarkia «Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera» bidali den data*
2008ko maiatzaren 28a.
Bilbon, 2008ko maiatzaren 28an.—Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren foru diputatua, Juan Francisco Sierra-Sesumaga Ibarretxe
- Presupuesto de licitación: 271.551,72 euros, IVA excluido.
 - Valor estimado: 271.551,72 euros, IVA excluido.
- Lote 02: Autoescalera automática
- Presupuesto de licitación: 474.137,93 euros, IVA excluido.
 - Valor estimado: 474.137,93 euros, IVA excluido.
5. *Garantía provisional*
No se exige.
6. *Obtención de documentación e información*
- a) Departamento de Relaciones Municipales y Administración Pública, Servicio de Contratación, Gran Vía, 25, planta baja, Bilbao, 48009.
 - b) En la página web www.bizkaia.net/contratospublicos.
 - c) Fecha límite de obtención de documentos e información: El de la fecha límite de recepción de ofertas.
7. *Requisitos específicos del contratista*
Solvencia económica y financiera y solvencia técnica y profesional: La especificada en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.
8. *Presentación de las ofertas o de las solicitudes de participación*
- a) Fecha límite de presentación: Hasta las doce (12:00) horas del 7 de julio de 2008.
 - b) Documentación a presentar: La exigida en los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares.
 - c) Lugar de presentación: El mismo que figura en el apartado 1.
 - d) Plazo durante el cual el licitador estará obligado a mantener su oferta: Según el artículo 145 de la LCSP.
 - e) Admisión de variantes: No se admiten variantes.
9. *Apertura de las ofertas*
- a) Entidad: Departamento de Relaciones Municipales y Administración Pública, Servicio de Contratación (salón de actos destinado al efecto).
 - b) Domicilio: Gran Vía 25, planta baja.
 - c) Localidad: Bilbao.
 - d) Fecha: Se comunicará al respecto.
 - e) Hora: Diez (10:00) horas.
10. *Otras informaciones*
- a) Los criterios de adjudicación a utilizar figuran en los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares.
 - b) Procedimientos de recurso: Recurso especial conforme al artículo 37 de la LCSP.
 - c) Órgano competente para los procedimientos de recurso: Diputado/diputada foral del Departamento de Relaciones Municipales y Administración Pública.
 - d) Presentación de recursos: El mismo que figura en el apartado 1.
 - e) Servicio que puede facilitar información sobre la presentación de recursos: El mismo que figura en el apartado 1.
11. *Gastos de anuncios*
A cargo del adjudicatario los gastos de publicación en «B.O.E.» y prensa. Máximo 3.000 euros.
12. *Perfil de contratante*
www.bizkaia.net/contratospublicos.
13. *Fecha de envío del anuncio al «Diario Oficial de la Unión Europea»*
28 de mayo de 2008.
En Bilbao, a 28 de mayo de 2008.—El diputado foral de Relaciones Municipales y Administración Pública, Juan Francisco Sierra-Sesumaga Ibarretxe

Fruiz, Dima, Atxondo, Gatika, Maruri, Markina, Etxebarria eta Bolibarko ura hornitzeko instalazioetan teleaginte eta telekontrolleko sistemen hornidura eta instalazioa.

Ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen testu bateginaren 93. artikulua aplikatuz, adjudikazioak argitaratzea.

1. *Erakunde adjudikatzailea*

a) Erakundea: Bizkaiko Foru Aldundia.

b) Espedientea tramitatu duen bulegoa: Kontratazio Zerbitzua (Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saila).

c) Espediente zenbakia: 2007/C0026.

2. *Kontratuaren xedea*

a) Kontratu mota: Hornidura.

b) Xedearen azalpena: «Fruiz, Dima, Elorrio, Atxondo, Gatika, Maruri, Markina, Etxebarria eta Bolibarko ura hornitzeko instalazioetan teleaginte eta telekontrolleko sistemen hornidura eta instalazioa».

c) Atalak: Ez.

d) Aldizkari edo Egunkari Ofiziala eta lizitazio iragarkia argitaratu den eguna: Europako Erkidegoetako Egunkari Ofiziala, 2007ko azaroaren 7a.

3. *Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era*

a) Tramitazioa: Arrunta

b) Prozedura: Irekia.

c) Era: Lehiaketa.

4. *Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua*

— Zenbateko osoa: 600.000,00 euro.

5. *Adjudikazioa*

a) Data: 2008ko apirilaren 15a.

b) Kontrataria: U.T.E. Telecontrol BFA (G95530069).

c) Nazionalitatea: espainiarra.

d) Adjudikazioaren zenbatekoa: 494.774,16 euro.

Bilbao, 2008ko maiatzaren 26an.—Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren foru diputatua, Juan Francisco Sierra-Sesumaga Ibarretxe

(I-912)

Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 108/2008 FORU DEKRETUA, ekainaren 3koa, honen bidez, Artisautza programaren 2008ko lehen deialdia egiten da artisautzako enpresentzat.

Maiatzaren 13ko 80/2008 Foru Dekretuan Artisautza programa araupetzeko oinarriak ezarri dira; izan ere, programa horren helburua da artisautzaren sektorea suspertzen eta indarberritzen lagunduko duten jarduerak gauzatzea.

Foru Dekretu horretako eranskinetako zazpigarren artikulua ondoren enpresentzako deialdiak egongo direla ezartzen du.

Horregatik, programa 2008an kudeatzeko eta bertan jasotzen diren diru-laguntzak lortzea ahalbidetzeko, diru-laguntza horien artisautzako enpresentzako lehenengo deialdiaren araudi zehatza ezarri behar da.

Azaldutakoa oinarri hartuta, Berrikuntza eta Ekonomi Sustapeneko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2008ko ekainaren 3ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DA:

1. artikulua.—Diru-laguntzen deialdia

Foru dekretu honen bidez, Artisautza programako artisautzako enpresentzako diru-laguntzen 2008ko lehenengo deialdia onartzen

Anuncio de adjudicación del contrato de suministro e instalación de sistemas de telemando y telecontrol en las infraestructuras de abastecimiento de los municipios de Fruiz, Dima, Atxondo, Gatika, Maruri, Markina, Etxebarria y Bolibar.

Publicación adjudicación/es en aplicación del artículo 93 del texto refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por el R.D.L. 2/2000, de 16 de junio.

1. *Entidad adjudicadora*

a) Organismo: Diputación Foral de Bizkaia.

b) Dependencia que tramita el expediente: Servicio de Contratación (Departamento de Relaciones Municipales y Administración Pública).

c) Número de expediente: 2007/C0026

2. *Objeto del contrato*

a) Tipo de contrato: Suministro.

b) Descripción del objeto: Suministro e instalación de sistemas de telemando y telecontrol en las infraestructuras de abastecimiento de los municipios de Fruiz, Dima, Atxondo, Gatika, Maruri, Markina, Etxebarria y Bolibar.

c) Lotes: No.

d) Boletín o Diario Oficial y fecha de publicación del anuncio de licitación: D.O.U.E. de 7 de noviembre de 2007.

3. *Tramitación, procedimiento y forma de adjudicación*

a) Tramitación: Ordinaria.

b) Procedimiento: Abierto

c) Forma: Concurso

4. *Presupuesto base de licitación*

— Importe total: 600.000,00 euros.

5. *Adjudicación*

a) Fecha: 15/04/2008

b) Contratista: U.T.E. Telecontrol BFA (G95530069)

c) Nacionalidad: Española.

d) Importe de adjudicación: 494.774,16 euros.

Bilbao, a 26 de mayo de 2008.—El diputado foral de Relaciones Municipales y Administración Pública, Juan Francisco Sierra-Sesumaga Ibarretxe

(I-912)

Departamento de Innovación y Promoción Económica

DECRETO FORAL 108/2008, de 3 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se realiza la primera convocatoria del año 2008 para empresas artesanas del programa Artisautza.

El Decreto Foral 80/2008, de 13 de mayo, establece las bases reguladoras del programa Artisautza cuyo objetivo es el apoyo a la realización de actividades que permitan dinamizar y relanzar el sector de la artesanía.

El artículo séptimo del anexo del mencionado Decreto Foral establece la posterior apertura de convocatorias dirigidas a empresas.

Por ello, con objeto de gestionar el programa en el ejercicio 2008 y posibilitar el acceso a las ayudas contenidas en el mismo, resulta preciso establecer la normativa reguladora concreta de la primera convocatoria para empresas artesanas de las mencionadas subvenciones.

Por lo expuesto, a propuesta de la diputada foral de Innovación y Promoción Económica, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral, en reunión de 3 de junio de 2008,

SE DISPONE:

Artículo 1.—Convocatoria de las subvenciones

A través del presente Decreto Foral se aprueba la primera convocatoria para empresas artesanas del año 2008 de las subven-

da. Diru-laguntzok maiatzaren 13ko 80/2008 Foru Dekretuan daude jasota, eta «Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren» maiatzaren 22an (97zk.) argitaratu dira.

Deialdiak maiatzaren 13ko 80/2008 Foru Dekretuan ezarritakoa eta araudi honetako xedapenak izango ditu arau.

2. artikulua.—*Helburua*

Deialdi honen helburua da Bizkaiko Foru Aldundiak artisautza sektorea suspertu eta indarberritzeko asmoz emango dituen laguntzak ezarri eta araupetzea.

Hala, dekretu honetan ezarritako neurrien bitartez, sektorean honako helburu hauek lortu nahi dira:

- Artisautza sektorearen antolatzea.
- Bizkaiko artisautza zabaltzea eta ezagutarazteko aukerak eskaintzea.
- Artisautza enpresak eta haien produktuak sustatzea.
- Artisautza enpresen sorkuntza bultzatzea.
- Artisauen trebakuntza-maila hobetzea.

3. artikulua.—*Eskabideak aurkezteko epea, modua eta tokia*

1. Deialdi honetarako eskabideak aurkezteko epea 20 egun barru amaituko da, indarrean sartzen denetik aurrera zenbatuta.

2008. urtean deialdi gehiago egin ahal izango dira, beti ere, aurreko deialdia itxita, aurrekontuko krediturik badago.

2. Eskabidea, behar bezala bete ondoren, Internet bidez aurkeztuko da; horretarako, Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak web orrian (www.berrikuntza.bizkaia.net), atari birtualeko atalean, duen galdetegia bete behar da. Hala ere, hori ez da oztopo izango zuzenbidean onartutako beste edozein bide erabiltzeko.

Enpresa eskatzaileek eskabide bat aurkeztu behar dute diru-laguntzaren xede diren gastuen zenbateko osorako.

3. Honako artikulua honetan ezarri ez denari dagokionez maiatzaren 13ko 80/2008 Foru Dekretuak ezarri duena aplikatuko da.

4. artikulua.—*Eskabideekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa*

Gehieneko 5 eguneko epean, eskabideekin batera maiatzaren 13ko 80/2008 Foru Dekretuko 20. artikuluan ezarritako dokumentazioa aurkeztu behar da.

Dokumentazioa Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saileko erregistroan (Bilboko Orueta apezpikua, 6) aurkeztu behar da 8:30etik a 13:30era bitartean; halaber, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak 38.4 artikuluan xedatutako beste edozein bide erabil daiteke.

Edonola ere, eskabidearen tramitazio telematikoa lortutako espediente zenbakia jarri behar da dokumentazioan.

5. artikulua.—*Onuradunak*

1. Nortasun juridikoa duten enpresek jaso ditzakete foru dekretu honetan arautzen diren diru-laguntzak, artisautzako banakako enpresaburuak barne, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Zerga- eta sozietate-egoitza Bizkaian izatea.
- b) Produkzio-gunea Bizkaiko Lurralde Historikoan kokaturik egotea.
- c) Euren plantilan 15 langile finko baino gehiago ez izatea.
- d) Bizkaiko artisauen erregistroan izena emanda edukitzea.
- e) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan dagokion epigrafean lanbide edota enpresa jarduera batean alta emanda egotea.

ciones Artisautza, contempladas en el Decreto Foral 80/2008, de 13 de mayo, publicado en el «Boletín Oficial de Bizkaia» número 97, de 22 de mayo.

La convocatoria se regirá por lo dispuesto en el Decreto Foral 80/2008, de 13 de mayo, así como por las disposiciones de la presente normativa.

Artículo 2.—*Objeto*

Constituye el objeto de la presente convocatoria el establecimiento y regulación de las ayudas a conceder por la Diputación Foral de Bizkaia, destinadas a dinamizar y relanzar el sector de la artesanía.

Así, a través de las medidas establecidas en el presente Decreto, se busca alcanzar los siguientes objetivos en el sector:

- Ordenar el Sector Artesanal.
- Posibilitar la difusión y el conocimiento de la artesanía de Bizkaia.
- Promover las empresas artesanas y sus productos.
- Potenciar la creación de empresas artesanas.
- Mejorar el grado de formación de los/as artesanos/as.

Artículo 3.—*Plazo, forma y lugar de presentación de solicitudes*

1. El plazo de presentación de solicitudes a esta convocatoria finalizará al cabo de 20 días, contados a partir de la entrada en vigor de la misma.

A lo largo del año 2008 podrán realizarse sucesivas convocatorias cuando la existencia de crédito presupuestario al cierre de la convocatoria anterior así lo permita.

2. La solicitud, debidamente cumplimentada en todos sus términos, deberá presentarse por Internet, mediante el formulario que figura en la página web del Departamento de Innovación y Promoción Económica (www.berrikuntza.bizkaia.net), en el apartado correspondiente a su portal virtual, sin perjuicio de la utilización de cualquiera de los medios admitidos en Derecho.

Las empresas solicitantes deberán presentar una solicitud por la totalidad de los gastos por los que solicitan subvención.

3. En lo no previsto en el presente artículo será de aplicación lo establecido en el Decreto Foral 80/2008, de 13 de mayo.

Artículo 4.—*Documentación anexa a las solicitudes*

En un plazo máximo de 5 días deberá presentarse la documentación anexa a las solicitudes que se establece en el artículo 20 del anexo al Decreto Foral 80/2008, de 13 de mayo.

Esta documentación deberá presentarse en el registro del Departamento de Innovación y Promoción Económica (calle Obispo Orueta, número 6 de Bilbao), dentro del horario de funcionamiento del mismo (de 8:30 a 13:30 horas), sin perjuicio de la presentación mediante cualquier otro de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

En todos los casos, en la documentación anexa se deberá indicar el número de expediente que se obtendrá al tramitar la solicitud por vía telemática.

Artículo 5.—*Beneficiarias*

1. Podrán acceder a las subvenciones contempladas en el presente Decreto Foral las empresas con personalidad jurídica propia, incluyendo empresarios y empresarias artesanos/as individuales, que cumplan las siguientes condiciones:

- a) Que tengan su domicilio fiscal y social en Bizkaia.
- b) Que el centro de producción esté ubicado en el Territorio Histórico de Bizkaia.
- c) Que su plantilla no exceda de 15 personas fijas.
